Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko azaroaren 12a, asteartea — 216 — Martes, a 12 de noviembre de 2019



## ORDIZIAKO UDALA

*Ordiziako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko diru laguntzen deialdia.*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko urriaren 31an hartutako erabakiz, Ordiziako bizitegi-eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko diru-laguntzen deialdia onartu zen, 2019ko ekitaldirako, honako hauen arabera:

*Lehena. Xedea.*

Dirulaguntzen deialdia onartzea, lehiatzeko erregimenean, betiere Ordiziako Udalbatzak, 2011ko otsailaren 25ean, onartutako Ordiziako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko 2019ko ekitaldiko dirulaguntzak eta horien oinarri arautzaileak arautzen dituen Ordenantzan xedatutakoaren arabera.

Ordenantza hori 2011ko apirilaren 18an, 74. zenbakidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman zen argitara.

*Bigarrena. Xedapen arautzailea.*

Ordiziako bizitegi eraikinak eta etxebizitzak irisgarri egiteko eta birgaitzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak arautzen dituen Ordenantzan xedatutakoaren arabera arautuko dira honako alderdi hauek: pertsona eta erakunde interesdunek egiaztatu beharreko betekizun orokorrak, eskaeren aurkezpena eta tramitazioa, dirulaguntzak emateko prozedura, aurkeztu beharreko dokumentazioa, ordainketa, gastuen eta xedearen justifikazioa eta, oro har, dirulaguntza horiekin lotura duten alderdi guztiak. Ordenantza hori 2011ko apirilaren 18ko 74 zenbakidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eman zen argitara.

*Hirugarrena. Dirulaguntzari dagokion aurrekontu kreditua eta erabilgarri dauden kredituen barruan deitutako dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa.*

1. Erabilgarri dauden aurrekontu aukerek mugatuko dute dirulaguntzen emakida, Ordenantza horren lehen xedapen gehigarriaren arabera.

2. Dirulaguntza Ordiziako Udalaren 2019ko ekitaldirako aurrekontuko 1.480.02.152.20.0212 kontu sailari egotziko zaio, «Ordizian bizitegi eraikinetan irisgarritasun hobetzeko laguntzak».

3. Deitutako dirulaguntzen gehienezko zenbateko osoa 11.000 €koa da (hamaika mila eurokoa).

4. Deialdi honetan eman beharreko dirulaguntzen bolumen osoak ez du gaindituko dagokion aurrekontu esleipena.

*Laugarrena. Dirulaguntzak ematearen helburua, baldintzak eta xedea.*

Aditzera emandako ordenantzaren 1. artikuluaren arabera, deialdi honen helburua da Ordiziako bizitegi eraikinetan eta etxebizitzetan irisgarritasuna sustatu eta hobetzeko dirulaguntzak ematea.

Deialdi honetako aplikazio eremutzat hartuko dira Ordizian dauden higiezinak eta aipatutako Ordenantzako 2. artikuluan zehazten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Baldintzak Ordenantzan eta deialdi honetan ezarritakoak izango dira.

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Convocatoria de subvenciones para la accesibilidad de los edificios residenciales y viviendas de Ordizia.*

Por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 31 de octubre de 2019, se aprobó la convocatoria de subvenciones para la accesibilidad de los edificios residenciales de Ordizia correspondientes al ejercicio 2019, de acuerdo con lo siguiente:

*Primero. Objeto.*

Aprobar la convocatoria de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, conforme a lo dispuesto en la Ordenanza aprobada 25 de febrero de 2011, por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad de los edificios residenciales y viviendas de Ordizia, correspondientes al ejercicio 2019.

Dicha Ordenanza fue publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa núm. 74 de 18 de abril de 2011.

*Segundo. Disposición reguladora.*

Los requisitos generales que han de acreditar las personas y entidades interesadas, la presentación y tramitación, el procedimiento para la concesión de las subvenciones, la documentación a presentar, su abono, la justificación de gasto y destino, y en general cuantos aspectos relativos a estas subvenciones, se regirán por lo previsto en la Ordenanza aprobada el 25 de febrero de 2011, por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la accesibilidad en edificios residenciales de Ordizia, publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa num. 74 de 18 de abril de 2011.

*Tercero. Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones convocadas dentro de los créditos disponibles.*

1. La concesión de las subvenciones estará limitada por las disponibilidades presupuestarias existentes, de acuerdo con la Disposición Adicional primera de la citada Ordenanza.

2. La subvención se imputa a la partida 1.480.02.152.20.0212, «Ayudas para mejora de la accesibilidad en los edificios residenciales», del presupuesto del Ayuntamiento de Ordizia para el ejercicio 2019.

3. La cuantía total máxima de las subvenciones convocadas es de 11.000 € (once mil euros).

4. El volumen total de subvenciones a conceder provisionalmente en la presente convocatoria no excederá de la correspondiente consignación presupuestaria.

*Cuarto. Objeto, condiciones y finalidad de la concesión de la subvención.*

Es objeto de la presente convocatoria, en virtud del art. 1 de la Ordenanza indicada, la concesión de subvenciones para la promoción y mejora de la accesibilidad en edificios residenciales y viviendas de Ordizia.

A efectos de esta convocatoria se entenderá por ámbito de aplicación los inmuebles existentes en Ordizia y que cumplan con las condiciones señaladas en el artículo 2.º de la citada Ordenanza.

Las condiciones serán las establecidas en la Ordenanza y en la presente convocatoria.

EK\CV GAO-I-2019-07036

*Bosgarrena. Diru laguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.*

Ordenantza arautzaile horren VI Kapituluko 22. artikuluan ezartzen diren baldintzak, onuradunarenak zein diruz laguntzeko moduko jarduerarenak, bete beharko dira diru laguntza eskatzeko.

*Seigarrena. Prozedura bideratzeko eta ebazteko eskumena duten instrukzio organoak adieraztea.*

Alkatetzaren 19/0665 Dekretuan eskuordetutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzordea izango da deialdi honetan arautzen diren dirulaguntza horien instrukzio organoa.

*Zazpigarrena. Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, goizeko 9:00etan, eta 2019ko azaroaren 30ean amaituko da, 13:30etan.

*Zortzigarrena. Eskaerak aurkezteko tokia eta modua.*

Eskaerak egiteko, eskaera formulario espezifikoa erabili beharko da eta oso-osorik bete beharko da formulario hori.

Pertsona juridikoek baliabide elektronikoak erabilita eskatu eta bete beharko dituzte prozedura honen tramite guztiak. Horretarako, Udalaren web orriaren bidez sartu beharko dira tramite espezifikora, bertan ezarritako betekizunen arabera:

www.ordizia.eus/ Udal tramiteak.

Pertsona fisikoek baliabide elektronikoak erabilita edo aurrez aurre eskatu eta bete ahal dituzte prozedura honen tramite guztiak.

Eskaera elektronikoak Udalaren web orriaren bitartez aurkeztuko dira:

www.ordizia.eus/ Udal tramiteak.

Aurrez aurreko eskaerak, berriz, hemen aurkeztu ahal izango dira:

— Udal Herritarren Arreta bulegoan.

Eskaera elektronikoak sinatzeko, berriz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 15. artikuluan aintzat hartzen diren sinadura elektronikoko sistemetako bat erabili beharko da.

Ordiziako Udalak dohainik eta berehala jaulkitzen ditu pertsona fisikoak identifikatzeko eta sinatzeko ziurtagiri aurreratuak (B@kQ). Horretarako, Udal Herritarren Arreta bulegora hurbildu beharko da eta NANarekin edo AIZrekin identifikatu beharko da.

*Bederatzigarrena. Obrak egiteko, ebazpen eta jakinarazpen epeak.*

1. Obrak egiteko epea 2019ko irailaren 30era arte izango da.

2. Ordenantzaren 22. artikuluaren arabera, ebazpena hiru hilabeteko epean emango da, obrak bukatzeko emandako gehienezko epea bukatu ostean hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita.

Ordenantza horretan aurreikusten diren epeak amaitu, eta eskaeren ebazpenak egin eta jakinarazi ez badira, isilbidez ezetsi direla ulertu ahal izango dute interesdunek. Indarrean dagoen legerian aurreikusten diren administrazio eta jurisdikzio errekurtsoak jarri ahal izango dira dirulaguntzak emateko, aldatzeko edo ukatzeko behin betiko ebazpenen aurka.

*Hamargarrena. Eskaerari erantsi beharko zaion dokumentazioa.*

Ordenantzaren 22. artikuluan adierazten da erantsi beharreko dokumentazioa.

Laguntza horiek eskatu nahi dituztenek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte udal erregistroan:

*Quinto. Requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos.*

Los requisitos exigidos para solicitar la subvención, tanto de los beneficiarios como de la actuación subvencionable, serán los exigidos en el art. 22 de la Ordenanza reguladora citada.

*Sexto. Indicación de los órganos competentes para la instrucción y resolución del procedimiento.*

En virtud de la Delegación mediante Decreto de Alcaldía n.º 19/0665, la resolución de los procedimientos de concesión de las subvenciones reguladas en la presente convocatoria corresponderá a la Junta Local de Gobierno.

*Séptimo. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a las 9:00 horas del día siguiente al de publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y finalizará el a las 13:30 horas del dia 30 de noviembre de 2019.

*Octavo. Lugar y modo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes deberán realizarse conforme al formulario específico de solicitud y dicho formulario deberá cumplimentarse en su totalidad.

Las personas jurídicas deberán solicitar y realizar todos los trámites de este procedimiento utilizando medio electrónicos. Para ello, deberán acceder al trámite específico a través de la web municipal conforme a los requerimientos en ella establecidos:

www.ordizia.eus/Trámites.

Las personas físicas podrán solicitar y realizar todos los trámites de este procedimiento utilizando medios electrónicos o de manera presencial.

Las solicitudes electrónicas, se presentarán a través de la web municipal:

www.ordizia.eus/Trámites.

Las solicitudes presenciales podrán presentarse en:

— Oficina de Atención al Ciudadano del Ayuntamiento de Ordizia.

Las solicitudes electrónicas deberán firmarse utilizando algunos de los sistemas de firma electrónica contemplados en el artículo 10 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.

El Ayuntamiento de Ordizia emite de manera gratuita e inmediata certificados avanzados de identificación y firma para personas físicas (B@kQ). Para ello, es preciso personarse en las Oficinas de Atención al Ciudadano e identificarse con DNI o NIE.

*Noveno. Plazo de ejecución de las obras, resolución y notificación.*

1. El plazo de ejecución de las obras será hasta el 30 de septiembre de 2019.

2. De conformidad con el art. 22 de la Ordenanza, la resolución se emitirá en el plazo de tres meses, comenzando a contar desde el día siguiente al de la finalización del plazo máximo de ejecución de obras.

Ante el vencimiento de los plazos previstos en la citada Ordenanza sin dictarse y notificarse las respectivas resoluciones de su solicitud los interesados podrán entenderla desestimada por silencio. Contra las Resoluciones de concesión, modificación o de denegación de las subvenciones podrán interponerse los recursos administrativos y jurisdiccionales previstos en la legislación vigente.

*Décimo. Documentación que debe acompañarse a la petición.*

La documentación a acompañar es la indicada en el artículo 22.3 de la Ordenanza.

Quienes deseen solicitar estas ayudas deberán presentar en el Registro Municipal la siguiente documentación:

a) Eskabide-orri normalizatua behar bezala beteta, deialdia arautzen duten baldintza guztiak onartzen direla adierazita, eta obrak egingo diren eta dirulaguntzen xede izango diren eraikinak zenbat etxebizitza dituen adierazita.

b) Obra bukaerako ziurtagiria, dagokion teknikoak sinatuta.

c) Egin beharreko obraren edo esku-hartzearen aurrekontua, nahiz bukatuta dauden obren faktura.

d) Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Kontseilaritzak egindako baimen-buletina.

e) Eskatzailearen edo jabekideen komunitatearen (eskatzailea berau denean) IFZ/IFKren fotokopia.

f) 2. artikuluan xedatutako ondasunen gaineko eskubide errealen titularitatea justifikatzen duten agiriak, hala badagokio, jarduketa egingo den eraikineko jabekideen erkidegoan eratuta.

g) Titulartasun erregimena, etxebizitzen erabilera eta gozamena edozein delarik ere, horietakoren bat edo batzuk aitortutako desgaitasuna duten pertsonaren batek edo batzuek edota 65 urtetik gorako pertsonaren batek edo batzuek okupatu behar dute. Hori egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu.

h) Pertsona horren edo horien errolda-ziurtagiria aurkeztu beharko du etxebizitza hori edo horiek ohiko etxebizitza direla justifikatzeko.

i) Jabekideen komunitateak badira, jabekideen komunitatearen banku-kontuaren titulartasuna frogatzen duen agiria; horrek, komunitatearen eskatzailearen identitatearekin bat etorri beharko du. (Agiri hauetako edozeinek balioko du: banku-laburpenaren fotokopia; libretaren fotokopia; banku-erakundeak emandako ziurtagiria edo banku-erakundeak jarritako zigilua, dirulaguntza eskatzeko agiriko «komunitatearen banku-datuak» atalean.).

Eskaerak, deialdi honen zortzigarren puntuan «Eskaerak aurkezteko tokia eta modua» azaltzen den arabera aurkeztu beharko dira.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatugabea edo ez nahikoa denean, 10 egun balioduneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, eskatzaileari adieraziko zaio eskaera egin gabetzat joko dela okerra konpondu ezean, eta artxibatu egingo dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Jardunbide Komunaren Legeko 42.1 artikuluaren arabera.

*Hamaikagarrena. Dirulaguntzak kalkulatzeko irizpideak.*

Dirulaguntzak kalkulatzeko Ordenantzaren 22.6. artikuluaren arabera egingo da.

*Hamabigarrena. Komunikatzeko edo argitaratzeko bidea.*

1. Behin-behineko zein behin betiko ebazpenen jakinarazpen guztiak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluaren eta hurrengo artikuluen arabera egingo dira.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta haren kontra berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio organo honi, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiari, bi hilabeteko epean, betiere ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluaren arabera eta administrazioarekiko auzi jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 14. artikuluen arabera.

Ordizia, 2019ko azaroaren 6a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (7036)

a) Impreso de solicitud de subvención normalizado debidamente cumplimentado, aceptando todas las condiciones que rigen la convocatoria e indicando el número de viviendas de que consta el edificio en el que se ejecutarán las obras destino de las subvenciones.

b) Certificado final de obra, suscrito por técnico competente.

c) Presupuesto de las obras o intervenciones a realizar o facturas para el caso de las obras ya concluidas.

d) Boletín de autorización expedido por la Consejería de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

e) Fotocopia del NIF/CIF del/de la solicitante o de la comunidad solicitante en el caso de comunidad de propietarios/as.

f) Documentos justificativos de la titularidad de los derechos reales sobre los bienes determinados en el artículo 2, agrupadas, en su caso, en comunidad de propietarios del inmueble sobre el que se propone la actuación.

g) Cualquiera que sea el régimen de titularidad, uso y disfrute de las viviendas, alguna o algunas de las mismas han de estar legalmente ocupadas por persona o personas con discapacidad reconocida o por personas mayores de 65 años. Deberá justificarse.

h) Esa o esas viviendas han de constituir el domicilio habitual de las mencionadas personas en el punto anterior que, además, han de estar empadronadas en Ordizia.

i) En el caso de comunidades de propietarios Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de la comunidad de propietarios/as, que tiene que coincidir con la identidad de la comunidad solicitante (será válido, cualquiera de los siguientes documentos: Fotocopia del extracto bancario; fotocopia de la libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado «datos bancarios de la comunidad» del mismo impreso de solicitud de subvención).

Las solicitudes se formalizaran de acuerdo con el punto Octavo, «Lugar y modo de presentación de solicitudes» de la presente convocatoria.

Cuando se compruebe que la documentación presentada por el/la solicitante es incompleta o insuficiente, se concederá un plazo de 10 días hábiles para la subsanación de las faltas o se acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no se hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose sin más trámite, con los efectos previstos en el artíulo 42.1 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Undécimo. El cálculo de las subvenciones.*

El cálculo de las subvenciones se realizará conforme al art. 22.6 de la Ordenanza.

*Duodécimo. Medio de comunicación o publicación.*

1. La práctica de las notificaciones de las resoluciones se realizará de conformidad con lo previsto en los arts. 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Este acuerdo agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante este mismo órgano en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la fecha de su publicación, todo ella de conformidad con lo dispuesto en el artículo 123 de la Ley 39/2015 de 1, de octubre del Procedimiento Administrativo Común y artículos 8 y 14 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Ordizia, a 6 de noviembre de 2019.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (7036)

EK\CV GAO-I-2019-07036